

FITXA: 247 -ARABA - 20.000 biztanletik beherako udalei eta Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei zuzendutako laguntzen deialdia, nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko

Nori zuzendua: 20.000 biztanletik beherako udalei eta Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei.	
Deialdia: ALHAO - Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala	Deialdiaren data: 2026/06/17
Sarbide-esteka: https://egoitza.araba.eus	
Erreferentziazko araudia:	ALHAO -2026-69-1736. - https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/069/2026_069_01736_e.pdf
Eragin eremuak: Gizarte Politika	
Zenbatekoa: 100.000,00 €	
Aurkezteko lehen eguna: 2026/06/18	Aurkezteko azken eguna: 2026/07/16
Aurrerakina: Ez da zehaztu.	Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu
Gehieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.	Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.
Tramitazioa: Norgehiagoka.	

Laburpena

Deialdi honen xedea da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 20.000 biztanletik beherako udalei eta Arabako Lurralde Historikoko kuadrillei eman ahal izango dizkien laguntzak arautzea. Norgehiagoka bidez ematen diren laguntza horiek nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko sostengu- eta zaintza-ekosistemak eraikitzen lagunduko dute 2026ko ekitaldian.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- I) Nahi gabeko bakardadea prebenitzea.
- II) Nahi gabeko bakardadea detektatzea.

III) Nahi gabeko bakardadearen aurkako esku-hartzea.

Jarduera-ildoak

* 1. arloan: Nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko programa eta jarduerak:

- Komunitate bateko kide izatearen sentimendua sendotzen duten jarduerak, barnean hartuta aldagai hauek: belaunaldien arteko elkarbizitza, kultura, jatorria eta abar.
- Nahi gabeko bakardadearen errealitateaz sentsibilizatzeko jarduerak: hitzaldiak, mintegiak, konferentziak, kanpainak, eta abar.
- Nahi gabeko bakardadeari buruzko prestakuntza zikloak.

* 2. arloan: Nahi gabeko bakardadea detektatzeko programa eta jarduerak:

- Nahi gabeko bakardadearen egoerak detektatzeko egiturak sustatzea, bai banakako kasuak bai komunitateari lotuta dauden horiek kontuan hartuta.
- Nahi gabeko bakardadearen egoerak detektatzeko eta horien jarraipena egiteko prozedura eta/edo protokoloak garatu eta ezartzea.

* 3. arloan: Nahi gabeko bakardadearen aurka esku hartzeko programak eta jarduerak:

- Babes sozialerako egiturak sortzea.
- Esku-hartze psikosoziala sustatzeko programak.
- Gizarte interakzioa eta komunitatearekiko konpromisoa sustatzeko programak.
- Belaunaldien arteko etxebizitza ereduak abian jartzea.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Gastu diruz lagungarritzat joko dira eta, hortaz, deialdi honen bidez finantzatu ahal izango dira, diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren izaerari inolako zalantzarik gabe atxikitzen zaizkionak, ikuspuntu teknikitik eraginkortzat jotzen direnak eta 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten direnak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek laguntzaren justifikazio txostena aurkeztu beharko dute, eredu normalizatuaren arabera, 2026ko abenduaren 31ra arte.